

2.GAIA. EUROPEAR EKONOMIA (XVI,XVII ETA XVIII MENDEAK)

XV eta XVI. mendeetatik aurrera, erdi aroko krisiaren ondorioz ekonomia eta berri bat etorriko da. Feudalismo garatua. Europak munduko beste eskualde batzuekiko nagusigoa lortuko du, nahiz eta bere gorabeherak eduki, ekonomia hazkunde nahiko jarraitua da.

2.1 Feudalismo garatua eta europar hedakuntzaren berrasiera

-XVI hasieran:

-Familia ekonomian antolaturiko nekazaritza dugu nagusi.

-Klase feudalak bere gain hartzen zuen produkzioaren zati bat.

-Guraso eta seme alabek osatzen zuten produkzio oinarria. Familia nuklearra, beharrezkoa bazen jornalariak zeuden.

-Zerealak landatzeaz gain (urtaroen arabera) abereak edukitzen ziren. Azken hauek lan indarra eta ongaria emanaz. Nahiko ekonomia mugatua zen.

- Jaunak produkzio prozesutik aldendu ziren. Beraien erreserbak ez ziren baserriak bezain emankorrak. Kontrola nekazariak zeukaten, jaunak soilik errenta kobratzen zien. Bai soberakin bai diruarekin, batzuetan biek. Hauek ziren nekazariak soberakinak xurgatzeko modua. ATERAKETA FEUDALA.

-Kolonizazioa eta hirien sorkuntza gertatu zen. Oparotasuna XVI mende bukaerako prezioen iraultzarekin moztu. Honek segidan ia XVIIIko krisia sortuko du eta XVIIIko gorakada ere.

ZERGATIAK?

-1- Biztanleria eta ekonomia batera hazi. Ekonomiaren hazkundera ordea mantsotu zen. Lur txarrak, abeltzaintzarako erabiliak, erabiltzen hasi behar izan zuten landa eskaria asetzeko. Lurraren errendimendu beherakorraren legea, hots, goseteak eta soberakin heza.

-2- Klase feudalaren errenta sarrerak jaitsi. Beraz tasak igo eta erreserben gehitzea bultzatu zuten. Goseteak errenta dutenen gutxitzea ekarri zuen, lurak libre utziz, halabeharrez tasak jaitsi ziren. Nobleek gerretan eta kargu politikoetan bilatu diru sarrerak. Azkenean tasa eta nekazari kopuruen jaitsierarekin produkzioa igo egin zen. Lur onenak erabiltzen hasi ziren berriro. Hazkundera.

-3- Goi erdi aroan hiriekin merkataritza produkzioa inguru espezializatuera eraman zen. Hiri eta landa munduaren arteko lan banaketa. Manufakturak hirira eta nekazaritza produkzioa landa mundura. Salbuespenak meatzaritza eta metalurgia(kokapenak baldintzaturik) eta errementariak (landa munduarentzako produkzioa).

-4- Hiri sarea lortzeko ezinbestekoa da nekazal produkzioaren igoera bat. Hiriaren hornidura bermatzeko, artisauen lehengaiak ere landa mundutik zetozen.

-Hiria artisauek produkzio eta merkatal gunea zen. Hiriaren esku gelditzen zen beraz ekonomia merkatala. Manufakturen salmenta krisiei lotuta gelditzen zen nekazariak dirua janaria erosteko erabiltzen hasten zirenean.

-Hirietan gremioak zeuden merkatarien aldaketei aurre egiteko

- Merkataritzaren bultzada nagusietako bat jabekuntzaren presioa da. Zergen presioak nekazaria gehiago saltzera behartzen zuen, merkaturak dinamizatuz.

-Landetxe handiak etekina ateratzen zion krisiari: Merkatura produktu gutxiago eraman behar zituzten, beraz garraioa merkeagoa zen. Soberan zeukaten beraientzako eta merkaturako.

- Landetxe txikiak ordea gutxiago zeukaten eta errenta ordaintzeko ia dena saldu behar izaten zuten, azkenean jana ere erosi behar zuten bizirauteko, zorrak eta azken ondorio bezala beraien lurak galtzen zituzten.

Tasa feudalen erorketa galarazteko nobleziak bere lurak hedatu zituen. Beste nekazariak kenduz eta biztanleriak ez zeukatenak bere gain hartu. Nekazariak kendutako lurekin zer egiteko bi aukera zeuzkaten:

1. Alokatu nekazariak, errentan utzi.

2. Beraiek esplotatu lurra jornalariak kontratatuz.

- Eskulangintza merkataritzako merkatariek talka egin zuten gremioekin, hauen loturatik at egin nahi zuten produkzioa bera landa eremura eraman zuten. Landetako autokontsumorako artisautza zena merkatarien esku gelditu zen beraien produkzio eremua bertara mugitu zutenean. Bide irekia zeukaten beraien erreformak ezartzeko, hazkundera etorri zen.

-Nekazaritza eta artisautza ondasun ekoizleak espezializatu ziren. Biak lotuta daude, batak bestea behar baitzuen. Espezializazioak produktibitatea areagotu zuen. Gune baten uzta defizita beste batenaren soberakinarekin orekatu zezaketen. Horrela epe laburreko krisialdiak moteldu edo lasaitu ziren. Gizarte aldaketa berriak etorriko dira hazkundera honekin.

-Estatu aparatua oso rol inportantea jokatuko zuen aldaketa honetan:

Estatu zergak feudalari garrantzia kendu.

Estatuak edukiko du merkataritzaren kontrola beraz:

1. Produkzio esferan soldatapeko lana mantendu eta derrigortuko du.

2. Salgaien zirkulazio librea bermatuko du.

3. Merkataritza gizarte berrien zuzenbide formak sortuko ditu.

4. Azpiegiturak eraikitzearekin batera produkzio baldintza orokorrak ezarriko ditu.

-Prozesu honek industrializaziora bideratuko ditu.

- Nekazariak zerga zorrak kitatzeko: Merkaturatzeko produktuen produkzioa areagotu beharko dute(jaunen lurretan askotan lur nahiko ez zegoelako) edo bestela diru sarrera berriak bilatu beharko dituzte eskulana lantegietan, adibidez, lan eginez.

- Ehun urteko gerla ondoren Europako zenbait estatu lur gehiago hartzen hasi ziren, estatu handiagoak eta indartsuagoak sortuz, honek zentralizazio prozesuei hasiera emango die.

Lehen monarkia modernoek sorrera: Hispanikoa, Frantziarra, Ingelesa....

- Armada eta burokrazia nazional iraunkor bat bultzatu zen. Zuzenbide kodifikatua eta merkatu bateratua sortu zen. Zerga sistema nazional indarrean jarri zen. Ondorioak:

-Nobleen haserrea. Pribilegio eta botere galtzeak erregaren botere ABSOLUTOAREN aurrean(absolutismorako bidea dugu hau) matxinadak sortu zituen.

Soluzio bezala nobleziari lur jabego gehiago eman zitzaizkion. Estatuak lur hauen kontrola bermatuz bere errege armadarekin. Merkatarien taldeak, burgesiak, aurrera egin zuen, horrenbeste ze estatuen kreditu emaile nagusia bihurtu ziren. Hauen kredituak ezinbestekoak bilakatu ziren estatu gerlak, adibidez, finantzatzeko.

MONARKIA ABSOLUTUAREN EZAUGARRIAK

1. Armada iraunkor//profesionala. Hau lebaz, mertzenarioz eta era baxuagoan jaun feudalen soldaduez osaturik zegoen. Aro oso bortitza izan zen gerla etengabe ugarirekin. Diru gehiena bertan xahutzen zen. Nobleek protagonismoa galdu teknologia militarren aurrean, bolbora eta estrategia berriak zalditeriaren eta gazteluen gainbehera ekarri zuten.

2. Burokrazia konplexu, zabal eta langile asko duna. Langile hauek unibertsitatean heziak gehienetan. Armadako eta burokraziako goi karguak klero eta nobleziaren artean banatu.

3. Zerga sistema handia eta eraginkorra ezarri zen. Herriak ordaintzen zuen zuzeneko zerga. Zeharkako zergak gehitu ziren, denek ordaintzen baitzituzten.

4. Merkantilismoaren bultzada. Estatuaren esku hartzea ekonomian eta muturreko protekzionismoa ere nabaria da. Munduko ondasun kopurua finkoa da, beraz beste estatuei beraien "pastelaren zatia" hartzea besterik ez dago nazioaren irabaziak handitzeko. Ondorioz gerrak.

5. Diplomazia finkoen ezarpena, enbaxadak.

-XVtik aurrera Portugal eta Gaztelako erreinuak merkataritza eta esplorazio lanetan hedakuntza nabaria eduki zuten, kasualitate handia izango litzateke esatea bi erreinu hauek izan zirela lehenak krisitik ateratzen? Hedakuntzaren arrazoiak, zergatik hasi ziren esplorazioekin:

- Urre eta zilar arazoa zegoen merkataritzaren diru zirkulazioari eusteko.

- Arrantza leku berrien beharra zegoen, kaladeroak.

- Aurrerapen teknologikoen ahalbidetu zituzten enpresa hauek. Hauetako batzuk hauek izan ziren: Lema, astrolabioa, belen konbinaketa (latino eta greziarra), nabigazio kartak...

-Hedakuntza hau Madeira eta Kanariar irltako konkistekin hasten da. XV. zehar Portugal nagusitu zen itsasoan. Merkatal hedakuntza bat izan zen ordea, ez koloniala. Ekialdera, Indiaraino.

-Gaztelak ordea mendebaldera egin zuen. 1492 Amerika aurkitu zuten. 1550arte iraun zuen kolonizazio eta konkista prozesua hasi zuten. Erta Amerikatik hegoalderako lurak, Florida barne. Portugalek lortu zuen inperio txiki bat eratzea Brasilen.

- Beste potentzia europarrek Amerikar iparraldea esploratu zuten.

- Amerikaren konkista bereziki erraza eta azkarra izan zen. Hainbat arrazoi:

- Europarren gaixotasunen ekarrera. Hilgarriak indigenentzat.

- Arma eta gerla teknika modernoak.

-Amerikak ekarpen asko ekarri zituen Europara:

1. Urre eta zilarra, Espainiaren eskutik.

2. Nekazaritzarako produktu tropikal batzuk: Tabakoa eta kakaoa.

3. Produkzio gune egoki eta zabalak kafe eta azukrearentzako, adibidez.

4. Europar nekazal produktuak eriteko lur zabalak.

5. Nekazal produktuak Europan eriteko. Patata eta artoa.

6. Era txikiago batean gaixotasun batzuk. Sifilia nagusi.

-Zergatik Txina bezalako lurralde garatu batek ez zuen Amerika lehenago aurkitu?--

-Inperio zabal eta bateratua zen, immobilizazioa zen jarrera nagusia. Europaren kontrako eredia da. Europan estatu txiki ugari zeuden, beraien artean beti lehiaka.

Beraz lehiari tinko eusteko hedatze sistema berriak eta finantza modu berriak bilatu zituzten.

- Txinak gainera nahiko arazo zeuzkan inbasioekin, Europan aspaldi bukatu zirenak.

-Beraz Amerikak-- Gehiegizko populazioaren, deforestazioaren eta elikagai faltan arazoa konpondu zuen.

2.2 DEMOGRAFIA ETA NEKAZARITZA ARLOA:

- Feudalismo garatuko ekonomia eta gizarteak nagusiki landatarrak izaten jarraitzen zuten, erdi aroan antzera.
- Ugalkortasun tasa %35-40an zegoen, hilkortasunarena %30. Haur hilkortasuna berriz %150-250. Hazkunde natural mantsoa, negatiboa batzuetan. NOTA: % Berez milakoetan izan beharko luke baina ez dakit nola egin.
- Berez nekazal populazioa nahiko geldoa zen baina etorriko zen igoera demografikoak superpopulazioa sortuko zuen eta lur faltekin hasiko ziren. Emigrazioa iritsi zen.
- Beste eskualdetara. Aroka joaten ziren askotan jornalari moduan.
- Beste herrialdetara, Amerika batez ere.
- Hau batez ere nekazal lurralde pobre, populatu eta menditsuetan gertatu zen. Eskozia eta Euskal Herria adibidez. Garai honetan soldadu sartzea armadan oso ohikoa bihurtu zen.
- Lehen aipatu ez dudana emigrazio mugimendu bat hirietara joango zen. Lan bila.
- Gazteen jario hau ezinbesteko zen hiriarentzat, berezko hazkunde negatiboa eduki ohi baitzuen. Hirietako populazioa etorri berrien eta residenteen artean banatua gelditu zen.
- XVI. mendeko hazkunde demografikoa altua izan zen, hirien bultzada. Hiri sistema polinuklearra, ez zegoen argi zein hiri zegoen hierarkia ekonomikoaren gainean.
- XVII. mendean populazioa, orokorrean, estankatu zen, erta Europa eta mediterraneoan. Arrazoiak: Gerlak, izurriak (jada azkenetakoak), goseteak... Hiritartze prozesua indartzen joan zen lehen zona protoindustrialak sortuz mende bukaeran. Populazio hazkundearekin hasi ziren ere hirietara joaten ziren gazteak lehenago ezkontzen zirelako, beraz seme gehiago. Mende honetan Amsterdam izango da ordea hiri hierarkiaren buru, arlo ekonomikoan.
- XVIIko geldialdiaren ondoren hazkundea hasi zen berriro XVIII. mendean. Ez zen izan aurreko mendeetako baina nabarmenagoa. Populazioak ez du berriro jasango krisi demografikorik.

GARAI HONETAKO POPULAZIO HAZKUNDEA ERAGIN ZEZAKETEN

FAKTOREAK:

1. Nekazaritza iraultza mantsoa ematen ari zen. Espezie berriak, patata eta artoa, sartzen hasi ziren, oso produktiboak zirenak. Honi errepide eta ubideen eraikuntza politikarekin bat egin badugu Europa elikatu bat ateratzen zaigu, goseteen garaia bukatuko da.
2. Klima faktorea. XVIII XVII baino epelagoa izan zen.

3. Izurrien desagerpena. 1720 azkena Marseilan. Immunizazio prozesu bat garatu zuen gizakiak izurriteak jasan zituen mende guzti horietan, medikuntza ez baitzen nahiko aurreratu honi honen desagerpena egozteko heinean.

4. Gerlen suntsitze mailaren baxutzea. Antolakuntza arloko aldaketek zibilen gaineko ondorio negatiboak bazterten zituen.

-Nekazal produkzioaren gora beherak

Hau ulertzeko populazioa, teknikak eta gizarte antolakuntzak kontuan hartu behar dira.

-XVIko populazioak gora egin zuen beraz lur gehiago erabiltzen hasi ziren jende guztia hornitzeko. Ondorioz errendimendu beherakorren legea agertu zen. Hots. Uzta txarrak, goseteak... hirikortasunak gora egin zuen.

-XVII. mantsoki teknika intentsibo berriak ezartzen joan ziren. Hiri inguruetan gertatzen joan zen, batez ere iparraldean.

- Esan beharra dago nekazal soberakinak xurgatzen zituztela estatuak fiskoen bidez, feudalek errenten bidez eta kasu batzuetan burgesak alokairuen bidez.

- Nekazariak batez ere zerealak produzitzen zituzten, etxean baratza edukitzea oso normala zen. Aberastasunak mugatzen zuen abereen kopurua etxean. Herri lurretan zeuzkaten osagarri guztiak: Ehiza, egurra, ura, belarra...

- Espezializazioak agertzen hasi ziren eskualde batzuetan. Ardoa, zerealak, landare industrialak (tinteak)... jada ez da autokontsumorako produzitu, merkaturatzeko baizik. Etxeko industria nekazal lanekin konbinatzen joan zen.

- Patatak eta artoak elika arazoak ekiditen lagundu zuten.

-Mediterraneoan ez zen hain hazkunde nabaria izan, zergatik?

- Klima, udarako lehortekak.

- Zoru fina eta ez oso sakona nagusi da, ez da hain emankorra.

- Teknika atzeratuak, golde erromatarra eta txandakatze sistema sinplea

-Errentak asko igo ziren XVI erditik aurrera eta soldatak murriztu, jornalariak ahulduz (XVIIko krisia sortuz) mediterraneoan gehiago, zeba?

- Azalpen Malthustarra dugu, mundu betearena, eta hau bertako gobernuen presio fiskalengatik areagotu. Krisi irtenbidea nekazariari presioa gehiago areagotzea zela esan zuten. Kontratu gogorak ezarriz, indarkeria... errebolta sortu ziren.

-Mediterraneoan erruralizazioa gertatu zen ere. Hirientzat kalte.

Europa ekialdea

- Bertan bigarren joputza edo morroitza martxan jarri zen. Prusia, Hungaria, Polonia eta Errusia.
- Bertako populazio dentsitate baxua zen, lur huts askorekin, nobleek bereganatu zituztenak. Populazio hazkundearen ondorioz nekazalgoak nobleengana jo behar izan zuen lur bila.
- Hiri burgesia berriz oso ahula zen. Hiriak txikiak ziren eta gehienak nobleen esku zeuden, gainera merkataritza trafikoa Hansako aleman eta holandarren esku zegoen. Gainera hauei egiten zitzaizkien manufaktura eskakizun gehienak, bertakoak baztertzuz, luxuzko objektuekin adibidez.
- Europaren merkatuan sartu ziren zereal eskariari erantzun ziotenean.
- XVIIko krisiak ordea eskaria gutxitu zuen, nobleen diru sarrera txikituz. Hau saihesteko joputza indartu zuten.
- Wallenstein eskema jarraituz Europa ekialdeko lurak prezio=kostu baxuko lehengaiak produzitzeko zonak ziren, Ameriketako kolonien antzera.
- Errusia eta Polonia bi adibide argi dira, baina desberdinak, estruktura politikoarekiko batez ere. Errusiak zentralizazio maila oso altua zeukan, nahita nahiez egin behar izan zuena aspaldi inbaditzaileei aurre egiteko. Polonian ordea nobleek zeukaten indar gehiena, beraiek aukeratzen zuten beraien erregea.
- Europako zona dinamikoena ipar mendebaldea zen. Hiritartuena eta populatuena. Eta noski, aurreratuenak.
- Flandria eta Holanda ziren zona nagusiak.
- Urbanizatuenak, modernoak(produkzioa ez nahiko eta ekialdetik hornitu behar) eta lur emankorrenak zituzten. POLDERIZAZIO PROZESUAREN bitartez. Itsasoari lur kentzeak alegia.
- Nahiz eta Espainiaren aurkako gerra luze eta suntsigarriek nahiko eragin negatiboa eduki hegoaldeko lurretan "Iparralde independenteak" XVIIko krisia arazorik gabe igaro zuten. Merkataritza loraldia etorriko zen, 1680tik aurrera krisia, hala ere aldaketak jada ezarriak zeuden, nekazal iraultzaren hazia.

--Nekazal iraultza--

Britainia Handian egin ziren nekazal iraultzaren aldaketa zabalenak. Ingalaterrako zonalde aberatsenetan.

Aldaketa horiek ulertzeko kontuan hartu behar dira behe erdi aroko krisialdiaren panorama:

- Noble txikien garrantzia areagotzea.

-Garaiko gizarte gatazkek lur jabeen eskubideak ahuldu zituzten.

- Artile produkzioaren gorakada, hesitzea, nekazariak pobretuz.

Hala ere aro berrian B.Hko nekazaritzak zereal eta abeltzaintza konbinatzen zituzten lurretan. Hiru urteko labore txandaketarekin. Lur hesitu gabetan. OPENFIELD. Herri lurak ere bazituzten.

ALDAKETAK:

1.Oztopo tradizionala, sorgin gurpila, gaudituz zen, errendimendu beherakorra alegia.

Txandaketa konbinaketa, urte batzuetan lurra abeltzaintzarako erabiliko zen besteetan berriz nekazaritzarako. Beraz lur zabal handien hesitzea. XVIIIarte ez zen guztiz finkatu ideia hau, azkenean parlamentuak derrigortu zuen arte dekretu baten bidez.

2. XVI-XVII desamortizazio eta errege lurren salmentekin lurjabeak indarra lortuko dute, handiek eta ertainek ordea, botere adkisitiboa zeukaten bakarrak lur horiek erosteko. Nekazari txikien baztertze eta pobretzea.

3. Herbereetako teknikak martxan jarri zituzten: Ukuiluratzea, ongarrien erabilera intentsiboa(ukuiluei esker), ubide eta drenatze sistemak....

Beraz igoera astiro eta etengabea izan zen. Ingalaterrak zerealak esportatzera iritsi zen.

Nekazaritzaren garapen honek nekazal proto industria bat bultzatu zuen.

-Jabe handiaren zabalkuntza 1870rako ikaragarria zen, soilik jabeen %1,4 lurren %69ren buru zen. Jabego txikien desagertzeak. Hirietara joan behar, hauek proletargoaren zati bat osatuko dute.

- Populazioa asko hazi zen. Soberakinak saltzeko edo garai txarretan jana erosteko, berdina da, nekazaritza eta merkataritzaren loturak areagotu.

Prezioen mugimendua aro berrian

- XVIan prezioak igo orokorrean, errentak bezala. Prezio iraultzen ondorioa, lurjabe handiek sarrerek handitzen dituzten bitartean pobreek lur galerak eta zorrak dituzte.

-XVII. Deflazioa. Eskariaren geldialdia. Produkzio asko eta eskari gutxi.

-XVIII. Lur jabeak kaltetuak izaten hasten dira, legearen bidez beraien posesioak babesten dituzte, maiorazkoaren sorrera. Ezin saldu ezin galdu. Erreserba gehiago, presio fiskal gehiago eta indarkeria ere nahiko komuna izango da.

MERKATARITZA GLOBALERANTZ

2.3 MANUFAKTURAK, MERKATARITZA, KOLONIAK ETA FINANTZA-ARLOA

Industria

- Hainbat elementuk baldintzaturik.
- Landa eremuko buruaskitasun maila handia.
- Eskari oso elastikoa uztei loturik; premiazko produktuen prezioak gora, eskaria behera.
- Orokorrean goraldia.
- Populazioaren (batez ere hiritarraren) goraldi nabarmena.
- Kolonia-hedakuntza à merkatu berriak. Italiak, Ingalaterrak, Holandak eta Frantziak batez ere baliatu.
- Gudaren garestitzea (kanoiak, ontziak...).
- Jendearen gustuak (moda...).
- Aurrerapen teknikoak (Inprenta, labe garaiak, paper-errota, nabigazio sistema aurreratuak...).
- Industria erdiguneak lekualdatu. Lehen Italia edota Herbehereak, XVIII. mendean Holanda edota Ingalaterra.
- Arrazoiak: Atlantikoaren merkatal garrantzia eta protoindustrializazioaren hastapenak. Gremio sistema albo batera utzi.
- Ekoizpen industrialala hirietatik landa eremuetara mugitu.
- Gremioak: prezio eta soldata altuak, ekoizpen malgutasun eskasa.
- Nekazariak: gremioetatik at à prezio eta soldata baxuak, araudirik ez, mugarik ez, malgutasuna.
- Protoindustrializazio guneak sortu. Bi sistema.
- Verlagsystem, putting-out system edo aurreratze sistema. Merkatariak lehengaiak eman nekazariei.
- Kaufsystem. Berdina baina nekazariak lehengaiak ere baditu bere aldetik.
- Manufakturak Europa guztitik zabaldu eta ugaritu.
- Industria fabrikekin desberdintzen duen gauza bakarra mekanizazio eskasa, lan-eskuaren garrantzia eta energia-iturriak dira.
- Askotan (oihalgintzan adibidez) sistema domestikoaren azken faseak burutzeko erabili.
- Abantailak.
- + landa-ekoizpena sasoikoa. Produkzioa handitu nahi bazen komenigarria.

- + Protoindustrializazio guneak geografikoki gehiegi zabaldu, deserosoak bilakatu.
- + Sistema domestikoa ez zen ekoizpen guztietarako egokia (ontzigintza...).
- Politika merkantilistei jarraiki sortu. Luis XIV.aren Errege-Manufakturak kasu.
 - Sistema berriek kalte larria egin gremioei, gune batzuetan mantendu ziren halere.
- XVI.a hazkunde mendean oihalgintzaren alorrean (Italian, Alemanian, Suitzan, Frantziako Lyoneko zetagintzan, Gaztelan...). Artilezko oihal astun eta garestiak gremio testuinguruan eginak.
- XVI. mende bukaeran beheraldia. Jendearen kontsumo ahalmena jaitsi (soldatak behera, prezioak gora) à Zonalde batzuek garrantzia galdu, bakan batzuek mantendu.
- New draperies. Artile eskasagoa, kardatua eta bolatu gabea à merkeagoa. Kolore biziak. Holandan eta Ingalaterran. XVII. mendeko krisia à euren salmentak gora egin.
- Gaztela eta Italian gremioen indarra oso handia, Gaztelan presio fiskal handia à Ezin egokitu.
- Ingalaterrak politika protekzionista à oihalgintza alorreko lehen potentzia bilakatu à Industria iraultzaren hastapenak oihalgintzaren inguruan.
- Kotoizko oihalen erabileraren goraldia.

Meatzaritza

- XV. mendetik aurrera ekonomi goraldi meatzaritzak gora.
- Produktu berriak behar (nekazal tresnak, industria belikoa), urrea eta zilarra...
- Erteuropan gune nagusia, baita Kornia, Suedia, EH edota Errusia ere.
 - Teknika berriak.
- Ura ateratzeko bonbak.
- Mercurio nahaspilaren metodoa: Zilar produkzioan onurak. Zilarra eta hondakinak nahasteko metodo azkar eta eraginkorra.
- Labe garaiak : Kalitate gutxiagoko burdina produzitzen zuten guneak sortu.
 - Kostuek gora egin nabarmen: Merkatariak indar handiagoa meatzaritza kontuetan.
- Fugger familiak Tiroleko kobre meatzeen monopolioa bereganatu.
- Koste handiak: Enpresa talde handiak sortu. Langile soldatadunak, lehen enpresa kapitalistak sortu.
 - Deforestazioa, siderurgiaren itomen teknologikoa: Harrikatzaren ustiakuntzak gora egin. Etxeak berotzeko: zeramikagintzan eta burdingintzan.

Siderurgia

- XVI. mendean burdin produkzioaren goraldia à Aurrerapen teknikoak gauzatu.

-Labe garaiak à zeharkako sistema.

+ Temperatura oso altuak, burdina urtu à Burdin zarpail, gogor eta hauskorra. Bigarren eraldaketa prozesu bat behar burdinoletan (fintzea) burdin geza ateratzeko.

+ Lan mota berriak azaldu eta produktu berriak egin ahal izan (kanoiak, balak, lapiko handiak...).

- + Langile gehiago, langileko produktibitate handiagoa.

- + Erregai gehiago behar à Basoen ustiakuntza handitu à Enpresa ibiltariak sortu.

- Produkzio tradizionallean ziharduten zonaldeek atzera egin eta merkatuak galdu.

Adibidez, EH.

-Siderurgia gune berriak azaldu: Suedia, Errusia... baso asko à erregai merkeagoa.

- Ingalaterrak bere basoen hedadura izugarri murriztu à Harrikatza erabiltzen hasi bere ekoizpena ez txikitzeko.

Merkataritza transozeanikoa

- Globalizazioaren lehen urratsak. Erdigunea eta periferia markatuz joan ziren.

- Amerika XVI. mendean metal preziatuen esportatzaile. Lan esku behartua erabili izan zen bertako indiarrekin mita incaica, encomienda edota repartimiento bezalako sistemei jarraiki.

- Hasieran urrea eta XVI. mendeko erdialdetik aurrera zilarra kantitate handitan ailegatu (Zacatecas, Potosi...) à Prezioen iraultza jaso.

- Ameriketako nekazaritza sistema propio bat sortu latifundio handien inguruan meatzaritza ekonomia osotzera bidean. Lan esku behartua erabili.

- Hasieran bertako produktuak oso kantitate txikietan (Tabakoa, kotxinilla...), Europatik Amerikara azukrea... XVII. mendeko lehen erdialdetik aurrera artoa edota patata Europara.

- Europar ekonomiarentzat merkatu bilakatu Amerika. Bertako kolonoek europar produktuak kontsumitu (jakiak, manufakturak...).

-Europar gobernuek kolonietako manufakturaren garapena ez bultzatu eta kasu batzuetan oztopatu.

- Amerikatik Espainiara iritsitako diru gehiena Europara.

-Espainiaren guda inperialistak Europan.

-Gaztelak Amerikara bidaltzeko produktu manufakturuak Europan erosi.

-XVII. mendetik aurrera herrialde horiek Amerikan baseak eskuratu eta bertatik diru gehiago lortu itsas lapurreta, kontrabandoa edota merkataritzaren bitartez.

- Amerikako indigenen populazioan katastrofe demografikoa (gaixotasunak, guda-sarraskiak eta lan baldintza eskasak). Bertako egituraketak aldrebestu eta desagerrarazi.

- Tordesillaseko ituna (1494) à Portugalek Brasil bereganatu. Asiaranzko bidean portutxo batzuk baino ez bertan.

- XVI. mendean zehar Ingalaterra eta Frantzia Amerikara espedizioak antolatzen hasi (Cabot, Cartier...) ez zuten probetxugarri izan zitzaiekeen lurrik aurkitu eta abandonatu zuten hedakuntza XVII. mendera arte.

- XV. mendean Asiaranzko itsasozko bidea aurkitu (Vasco de Gama) à Europak Asiarekin harreman komertzialak handitu.

-Portugalek bereganatu monopolioa.

+ Hainbat gune bereganatu (Goa, Ormuz...) eta erresuma askorekin akordioetara iritsi.

+ Hedakuntza komertziala ez amerikar motako konkista.

+ Monarkiak monopolioa. Lisboako casa de India.

-Beste europar herrialde askok Portugal erasotu merkatal bideen kontrola berenganatzeko.

-Europa eta Asiaren arteko balantza defizitarioa à country trade edo asiar herrien arteko merkataritza bereganatzen saiatu.

- XVII. mendearen bigarren erdialdean Ingalaterra, Frantzia eta Holandak Ipar Amerikan (populazio koloniak) zein Karibbean (ustiapen koloniak) lurrak bereganatu. Ondorioak.

-Itsaslapurreta eta kontrabandoa burutzeko zentroak berenganatu.

-Plantazio ekonomia garatzen hasi. Gero portugaldar eta espainiarrek kopiatu.

- Plantazioek laneku kantitate handiak behar zituzten. Hasiera batean zuri zordunak erabili, ez zen nahikoa. Beltzak inportatzen hasi Afrikatik.

-Hasieran merkataritza musulmanen esku esklabo merkataritza, XV. mendearen bukaeran Portugalek bereganatu.

-XVI. mendean esklabo fluxuak gora egin. Portugalek bere gain hartu. Espainiak ez (Tordesillas). Meatzaritza guneetan lan egin hasiera batean.

-XVII. mendean plantazio ekonomia ezarri à Fluxuak gora.

+ Afrikara kristala, bitxikeriak eta balio gutxiko manufakturak esportatu esklaboen truke.

+ Esklabo kantitate handia behar bidean eta Amerikan hilkortasun maila altua eta ugalkortasun maila baxua zegoelako à Afrikako herri askoren ekonomia euren etsaiak giltzapetu eta saltzera mugatu egin zen.

-Esklabeoi esker Amerikako plantazio ekonomiak aurrerapen nabaria jaso zuen, produktu merkeago eta ugariagoak esportatu zitezkeen Europara.

•Ekonomia hirukoitza Europa, Amerika eta Afrika artean. Itsaso-enpresa asko horretan espezializatu ziren Europako hainbat portutan. Europar burgesiaren goraldia erakarri.

•XVII. mendean zehar Portugaleko Inperioa gainbeheran erori eta Holandak bereganatu zituen Portugalen kolonia komertzial gehienak (Ormuz, Zeilan, Indonesia...), espezien komertzioaren kontrola bereganatuz.

-flaytship delako ontziei esker, karga gehiago eta tripulazio gutxiago.

-Komertzioa estatuaren laguntza zuen enpresa pribatu baten esku. VOC akzio konpainia zena alegia.

•Konpainia ezberdinen sorrera. Holandan VOC eta WIC (Amerikarekin aritzeko), Danimarkan, Austrian, Frantzia edota Ingalaterran. Espainian Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra.

-Asiarekiko komertzioa defizitariora izaten jarraitzen zuen à Country trade-a handitu.

-Espezie merkatuan saturazioa à Prezioak jaitsi à Asiatik beste produktu batzuk ekartzen hasi, hala nola, portzelanak, kobrea, tea...

•XVIII. mendean metal preziatu gehiago Amerikatik (Brasilgo urre meatzeen aurkikuntza...), Amerikako populazioa handitu, plantazio ekonomiak garapen ikaragarria (Ingalaterrak kotoi plantazioak ezarri) à Europa eta Amerikaren interdependentzia handitu.

-Esklaboen esportazioa handitu.

+ Ingelesak bereganatu monopolioa, portugaldar eta frantsesak gero.

+ Kritikak ilustratu eta zenbait talde erlijiosoen aldetik esklabotasunari.

-Espainiak bere kolonien kontrol handiagoa lortu Borbondarren politiken ondorioz.

•Nekazaritza ekonomia oparora (lur jabeak zirelako nagusi, feudalismoaren kateetatik at), industrializazio goiztiar bat... à Ipar Amerikako ingeles kolonien garapena.

-Indigenekin mestizajerik ez.

- XVIII. mendean Amerikak ingeles eta frantses produktu manufakturatuen behar handiagoa ekonomia hirukoitzaren dinamikaren barruan.

- XVIII. mendea. Frantziak eta Ingalaterrak Holanda albo batera utzi Asiarekiko komertzioan (komertzio defizitarioa, country trade...).

- XVIII eta XIX. mendeetan Ingalaterrak, Sortaldeko Indietako konpainiaren bitartez, India bere gain hartu eta bertako produktuak Europara eraman, India baita ere ingeles produktu manufakturatuen jomuga.

- Frantzia Indian lurak bereganatzen saiatu, porrota.

Europa mailako merkataritza

- Hazkunde nabarmena jaso zen hemen ere XVI eta XVIII. mendeetan.

- Feudalismo berantiarreko noble familia asko merkataritza balioak ekoizten hasi ziren euren lurretan.

- Baltikotik eta Europa erdialdetik produktu astunak (zerealak, egurra, arraina, larruak...), hegoaldetik luxuzkoagoak (oihalak, gazta, ardoa, olio...) eta Amerikatik zetozenak hiri nagusietan bildu.

- Amberes (XVI), Amsterdam (XVII) edota Londres (XVIII), baita bigarren mailako hiriak ere.

- Kapitalismoaren lehen oinarriak hemen finkatu zirela esan daiteke.

Estatuaren eta bankaren indarra ekonomian

- Guda kostuen igoera eta Behe Erdi Aroko krisiaren osteko feudalismoaren krisia à Estatua indartu.

- Estatuak ahalegin handiagoak egin behar bere burua finantzatu ahal izateko à Zuzeneko zergak handitu eta zeharkako zergak sortu Behe Erdi Aroan zehar.

- Estatu Orokorrak edota Parlamentuak sortu zergen inguruan eztabaidatzeko, gero beste hainbat erabilgarritasun bereganatuko zituztenak. Aro Berrian absolutismoa eta hauek gainbeheran erori.

- Fiskoa partekatua zen. Estatuaz gainera nobleek edota Elizak ere hauek jasotzeko eskubidea.

- Estatuaren beharrianak handitu eta ezin zituen zergekin soilik ordaindu à Kreditura jo. Bankari edota merkatoriengana.

- Epe laburreko kredituak. Arrisku handia à Interes tasa ikaragarriak.

- + Ordainketa zergen idazpenaren bitartez egiten zen kasu askotan.

-Estatuek askotan ezin zituzten euren zorrak kitatu. Bankarrotak aldarrikatu eta panikoa sortu, banketxeek katean pairatzen zuten kiebra.

-Konponbide bezala askotan epe luzerako kredituak erabiltzen ziren.

-Zor tituluak. Baituragarriak, bizirakoak edota betirakoak.

+ Bankarrota kasuetan epe luzerako zorraren tituluetan ordaindu oi zen hartzekodunei.

-Bankariek estatuekin harremanetan jarraitu (lurrak, tituluak...) nahiz eta arriskuak handiak izan.

+ Epe luzeko zorrak orokortu egin izan ziren, nahiz eta bankarrotarik ez egon ere.

•Egoera honek askotan krisi sakonak eta baita nazioarteko finantza krisiak sortzen zituen. Hori ekiditeko ogasun orekatuagoak lortzeko aurrerapausoak eman Holanda edota Ingalaterrak.

-Hau burutu ahal izateko herrialdeko bankarien talde eraginkor eta boteretsu baten beharra zegoen eta baita estatuko zorra epe luzeko kredituetan sartua egotea.

+ Epe luzeko kredituen ordainketa estatuko ogasunaren xede nagusia bilakatu zen.

-Zor publikoaren hartzekodunei ordaintzeko eta biztanleen aurrezkiez baliatzeko Ingalaterrako Bankua sortzen da 1609an.

- Arrazoiak.

+ Ingeles ekonomiaren garapen ikaragarria.

+ XVI. mendeko iraultza burgesa à Estatuko politika lurjabe eta merkatariaik pozik izatera bideratua zegoen.

-Holandan ere antzeko egoera politiko bat egon izan zela esan dezakegu.

•Krisiek gaur egungo burbuilen tankerako krisi kapitalisten itxura hartzen joan ziren.

-Holandako tulipan erreboiloen krisia, 1637an eztanda egin zuena.

-Hegoaldeko Itsasoetako Konpainiaren burbuila espekulatiboa.

+ Zor publikoa murrizteko gobernu ingelesak sortua, zor publikoa bereganatu eta jendea honen akzionista bilakatu zen. Amerika Hispanoarekin merkataritzan aritzeko monopolioa eman zitzaion. Akzioekin espekulazio ikaragarria egon zen, konfiantza txikitu eta krisia sortu.

+ Ia aldi berean porrota jasan zuen Frantziako Mississipiko konpainiak.

•Ingalaterra eta Holandak euren zor publikoen oreka lortu zuten, Frantzia edota Espainiak ez bezala (politikan merkatariek zuten eragin eskasa eta noblezia handiaren eragin itzela kausa batez ere).

•Maileguaren eragina gizatalde gehienetara hedatzen hasi zen pixkanaka.

-Zentzu kontsignatiboa. Nekazari lurjabeek hartzen zituzten zorrak, interes txikian.

-Kontsumorako maileguak krisi egoeretan, behartsuek jan zezaten.

•Lehen bankuak merkatarien interesei jarraiki sortu egin izan ziren: maileguak emateko, kanbio letrak, diru gordailuak...

-Hasieran ibiltariak gero sedentarizatu.

-Banako edota familia zehatz baten inguruan sortu, merkataritzan edo lukurrerian ariturikoak.

-Pribatuak ziren arren estatuek euren jarduera kontrolatu nahi izan legedi ezberdinen bitartez.

-Krisialdian banku pribatuek porrot à Banku publikoak sortu.

Ekonomiaren teorikoak

•XVI eta XVIII. mendeetan merkantilismoa izan zen nagusi.

-Helburu nagusia herrialdea aberastea da, militarri batez ere.

-Munduan aberastasun kantitate finko bat zegoela uste zen, hau da, hau handitu ezin zitekeela.

-Esportazioak inportazioak baino handiagoak behar zuten izan zilar eta urrea herrialdetik ez ateratzeko.

-**BULIONISMOA**: herrialdearen aberastasuna = urre eta zilar kantitatea. Hauen esportazioa debekatzera iritsi.

-Colbertismoa (legedi protekzionista muturrekoak), merkantilismo parlamentarioa Ingalaterran.

-Monetarismoa.

-Merkataritza balantza positiboaren ideia. Balio erantsi handiko produktuak esportatu (manufakturak) eta balio erantsi baxukoak inportatu.

+ Zenbait produkturen inportazioa debekatu, beste batzuen esportazioa erresago bilakatu.

+ Errege fabriken sorrera.

-Ingalaterran babesmerkatari Nabigazio Akten bitartez. Merkataritza ingeles ontzietan egin behar zen tripulazioaren gehiengoa ingelesa zelarik.

-Holandan elkartruke askearen alde jo egin izan zutela esan dezakegu.

•XVIII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera liberalismo ekonomikoaren ideiak zabalduz joan izan ziren pixkanaka.

-Munduko aberastasun kopurua aldagarria, handitu zitekeen. Hazkunde ekonomikoaren ideia nekazaritza edota industria iraultzari esker.

-Fisiokratak.

- + Ekonomiaren aberastasunak nekazaritzatik zetozen. Beste langile guztiak nekazaritzatik eratorritako aberastasuna eraldatzera bideraturiko klase antzua.
- + Nekazaritzaren garapena merkatu askearen bitartez baino ezin izango zen lortu.
- Adam Smith (1723-1790).
- + Historikoki jarduera ekonomikoek espezializatzeko joera dute. Beharrezkoa da, hortaz elkartrukaketetan aritzea.
- + Bakoitza bere interesari bideraturik jarduten du. Guztiek beren interesen alde joz gero azkenean gizartearen onura lortuko da. Horretarako beharrezkoa da merkatu librean oinarritzea ekonomia inongo esku-hartzerik gabe.